

2024/06/27an EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE  
LA CORPORACIÓN. Día 27/06/2024.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Edorta Barandiaran García  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Irati Iglesias Pozo  
Mikel Luengo Gabarain  
Dorleta Sologaitoa Aguiriano  
Maite Uribe Beristain  
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

**EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2024ko ekainaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Osoko bilkura, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Alaitz Orueta Arrese, Antonio Regaño Sajeras eta Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 27 de junio de 2024, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Alaitz Orueta Arrese, Antonio Regaño Sajeras y Puri Regidor Varela.

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2024/05/23an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

### **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2024ko ekainaren 20ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berriaz eman da 9. eta 12. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

### **3.- LANKIDETZA HITZARMENA ESKORIATZAKO UDALAREN ETA ARETXABALETAKO UDALAREN ARTEAN EKKO 2024-2025 PROGRAMA GARATZEKO.**

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak proposatzen du lankidetza-hitzarmen bat formalizatzea Aretxabaletako Udalarekin, EKKO Programa batera garatzeko 2024-2025 aldian.

Lankidetza-hitzarmen hori baliozkotzeko, beharrezkoa da 2024 eta 2025 ekitaldietarako ordainketak onartzea, konpromiso-kreditu bat sortuz, urteko honako ordainketa hauekin:

2024 urtea 7.415,62 €  
2025 urtea 12.359,38 €

Batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Aretxabaletako Udalarekin lankidetza-hitzarmen bat formalizatzea, bi herrietan EKKO Programa gauzatzeko 2024-2025 aldian. Akta honen 1. eranskinean zehazten dira formalizatu beharreko hitzarmenaren klausulak.

**Bigarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkaritzan sinatu dezan.

**Hirugarrena.-** 7.415,62 €ko gastua onartzea indarrean dagoen aurrekontuko 0400.422.337.20.01 partidaren kontura, eta lankidetza-hitzarmen hori sinatzeko konpromiso-kreditua sortzeko proiektu hau onartzea.

<b>Urtekoak</b>	<b>Zenbatekoa</b>
2024 urtea	7.415,62 €
2025 urtea	12.359,38 €

### **4.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN ESLEIPENARI UKO EGITEAGATIK ZEHAPENAK EZARTZEA.**

Udalbatzarrak 2023ko urriaren 26an erabaki zuen Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (nahitaezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) emateko kontratazio-espediente onartzea, 209.182,96 euro gehi BEZaren 20.918,30 euroko urteko lizitazio-aurrekontuarekin.

Proposamenak aurkezteko epearen barruan, enpresa bakar batek aurkeztu zuen eskaintza, SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO S.L.k.

Kontratazio Mahaiak, 2023ko abenduaren 21eko bilkuran, aho batez erabaki zuen, batetik, kontratua SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresari esleitzeko proposatzea, eta, bestetik, enpresa horri eskatzea behin betiko bermea eratu izana justifikatzen duen dokumentua eta kontratazioa arautzen duen baldintza administratiboen agiriaren 22. baldintzan adierazitako gainerako dokumentazioa aurkez zezala jakinarazpena bidali eta 10 egun balioduneko epean.

SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresak 2023ko abenduaren 21ean jaso zuen errekerimendua. Eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 8an amaitzen zen.

SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresak bilera bat egiteko eta dokumentazioa aurkezteko emandako epea eteteko eskatu zuen 2024ko urtarrilaren 3an. Horretarako, 2023ko abenduan negoziatu zen Bide Garbiketa Publikoaren eta Hiri Hondakin Solidoen Bilketaren Gipuzkoako Hitzarmen Kolektibo berria onartzearen ondorioz izandako soldata-igoerak sortutako egoera alegatu zuen.

Eskatutako bilera egin ondoren, eta planteatutako gai ekonomikoak aztertuta bertan, SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SLk idazki bat aurkeztu zuen 2024ko urtarrilaren 11n, lizitazioa bertan behera uzteko eta sozietatea eskatutako dokumentazioa aurkeztetik salbuesteko eskatzeko.

Aurreko idazkiaren edukitik argi eta garbi ondorioztatzen zen SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresak, lizitaztaile bakarrak, bere eskaintza erretiratzen zuela eta, horregatik, Udalbatzarrak, beste lizitaztaile bat ez zegoenez, lizitazioa esleitu gabe utzi zuela 2024ko urtarrilaren 25eko bilkuran.

Aurreko guztiaren ondorioz, egiaztatu zen SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL merkataritza-sozietateak, dokumentazioa aurkezteko emandako epean errekerimendua bete ez zuenez, bere eskaintza jaso zuela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikuluan ezarritako moduan.

Artikulu horren arabera, bidezkoa da lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 3a (BEZa gabe) eskatzea zigor bezala; behin betiko bermetik, erabakia egongo balitz, kontratuko dena lehendabizi.

Kontratazio-organoak 2024ko martxoaren 21ean hartutako erabakiz xedatu zen prozedura hastea zehazteko SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL merkataritza-sozietateak, berari kontratua adjudikatzeko, baldintza administratiboen agiriaren 22.2 baldintzan aurreikusitako dokumentazioa aurkezteko zuen betebeharra zenbateraino bete ez zuen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikuluan arabera, eta ondorengo erabaki proposamena ere egin zen:

*1.- Sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztea SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL merkataritza-sozietateak zenbateraino bete ez duen Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko kontratua esleitzeko beharrezko dokumentazioa aurkezteko zuen betebeharra.*

2.- 6.275,48 euroko zigorra ezartzea, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3ari dagokiona, BEZik gabe, Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko administrazio-kontratuaren zehapen kontzeptuan, 71. artikuluko 2. Idatz-zatiaren a) letran ezarritakoaren kalterik gabe.

3.- *SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL* merkataritza-sozietateari eskatzea ezarritako zigorra hilabeteko epean ordain dezala. Epe hori erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da.

Entzunaldi-tramitea emanda, *SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL* enpresak alegazio-idazkia aurkeztu zuen 2024ko apirilaren 16an, alegazio horiek honela arrazoituta:

*LEHENENGO ALEGAZIOA.-* Esleipen-proposamena 2023ko abenduaren 21ean egin zen. Egun batzuk geroago, 2024ko urtarrilaren 12an, Aselip eta Serbitzu SLk, enpresen ordezkari gisa, eta ELA, CCOO eta UGTk, langileen ordezkari gisa, Bide Garbiketa Publikorako eta Hiri Hondakin Solidoen Bilketarako Gipuzkoako hitzarmen kolektiboa sinatu zuten. Hitzarmen hori Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkariaren 2024ko otsailaren 27ko Ebazpenaren bidez argitaratu zen, eta Gipuzkoako Bide Garbiketarako eta Hiri Hondakin Solidoen Bilketarako 2023-2026 aldirako Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, argitaratu eta gordailatzea xedatzen du.

Hitzarmenak 4 urteko indarraldia izango du, 2023ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra arte, beste indarraldi edo iraupen bat ezartzen zaien gaien kalterik gabe.

Kontratua formalizatu eta zerbitzuan jarri aurretik Hitzarmena onartzeak agerian utzi du lizitazioaren eta haren baldintza-agirien deuseztasuna, lizitazioa arautu duten datu ekonomikoak zaharkituta geratu baitira lizitazioaren xede den sektoreko langileen soldatak eguneratzen dituen Hitzarmena formalizatzearen ondorioz.

Ez da lizitatuzaileak kontratuaren menturaren eta arriskuaren printzipioagatik bere gain hartu behar duen bat-bateko zirkunstantzia bat, izan ere, Administrazioak ez baitu kontuan hartu baldintza agiriak egitean Hitzarmen berriaren negoziazioa eta ez die lizitatuzaileei jakinarazi kontratuaren oreka ekonomikoari berari bete-betean eragiten dion zirkunstantzia hori.

Eskatutako dokumentuak aurkeztu ez izana baldintza agirien gerora sortutako deuseztasunaren ondorioa izan zen soilik; izan ere, Administrazioak, administratuek jarritako konfiantza legitimoa bermatzeko betebeharrean, baliorik gabe utzi behar zuen lizitazioa. Bestela, argi dago Administrazioaren aldeko aberaste bidegabea gertatuko litzatekeela, kontratuaren oreka ekonomikoaren printzipioaren arabera egokituko litzaiokeena baino kostu txikiagoko prestazio bat jasoko lukeelako.

.... Horregatik, inola ere ezin da aplikatu SPKLren 150.2 artikuluan aurreikusitako zigorra; izan ere, eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea ez da esleipendun gisa proposatutako lizitatuzaileari eska dakizkioken betebeharrak betetzea eragozteko, baizik eta lizitazioaren baldintza-agirien gerora sortutako deuseztasunagatik, agiri horiek errealitatearekin bat ez datozen eta nabarmen okerrak diren datu ekonomikoetan oinarritzen direlako.

Ez da beharrezkoa aipatzea bai doktrinak bai jurisprudentziak lizitaziorako oinarri den memoria ekonomikoari buruz argudiatzen duten zorrotasuna.

*Kontratuaren memoria ekonomikoa deuseza denez, bidezkoa da lizitazioaren deuseztasuna deklaratzeko.*

*BIGARREN ALEGAZIOA.- Jakinarazitako erabakiak hilabeteko epea ematen du zigorra ordaintzeko. Jakinarazitako erabakia ez da betearaztekoa, ez bakarrik ez delako prozedura amaitzen duen erabakia —horrela izateko jakinarazitako erabakiak hasitako espedienteari amaiera ematen dion administrazio-egintza bat eman behar delako—, baizik eta zehapen-izaerarengatik betearazlea delako bakarrik zigorra ezartzeko erabakiaren aurka administrazio-bidean errekurtsorik jartzerik ez dagoenean, APELen 90. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ondorioz, ordaintzeko hilabeteko epea eman ez dela ulertu behar da.*

Alegazioak ikusita, Idazkaritza-kontuhartzaitzak jakinarazi du bidezkoa dela alegazioak EZESTEAN ondorengo arrazoiengatik:

**LEHENENGO ALEGAZIOARI BURUZ:**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 197. artikulua (aurrerantzean, SPKL 2017) ezartzen du, oro har, kontratistak arrisku eta menturara jardun beharko duela kontratua egikaritzean.

Bestalde, 2017ko SPKLren 102. artikulua, kontratuaren prezioari dagokionez, adierazten du kontratazio-organismoek zainduko dutela prezioa egokia izatea kontratua benetan betetzeko, eta, horretarako, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua finkatzerakoan behar bezala zenbatetsiko dutela zenbatekoa merkatuko prezio orokorra kontuan hartuta.

Kasu honetan, kostu ekonomiko nagusia lan-kostuak direnez, kontuan hartu behar dira zerbitzuak ematen diren lekuan, eta, aurreko paragrafoari erreferentzia eginez, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua finkatzeko unean, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektibo sektorial, nazional, autonomiko eta probintzialesetan jasotako baldintza ekonomikoak. Beraz, kontratuaren prezioa kalkulatzeko, 2023ko urriaren 26an indarrean zegoen hitzarmena aplikatu beharko litzateke, orduan onartu baitziren baldintza-argiriak. Beraz, ez da bidezkoa baldintza agirien deuseztasuna alegatzea. Deuseztasun-arrazoiak 2017ko SPKLren 39. artikuluan arautzen dira, eta horien artean ez da jasotzen SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y CONDICIONAMIENTO SL enpresak alegatutakoa.

Horrez gain, 2017ko SPKLren 139. artikulua arabera, interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten agiritara eta dokumentaziora egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen duela klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe; beraz, SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SLk, bere garaian, lizitaziora aurkeztu zenean kontratuaren prezioa onartu zuen, eta ezin du hori alegatu kontratua ez formalizatzeko arrazoi gisa.

Illo horretan, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak 2018ko abenduaren 10ean kontratazio-organismoari emandako gomendioak, kontratu publikoa gauzatzean aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa aldatzearen ondorioz zerbitzu-kontratista den enpresa bateko langileen soldata-baldintzak gerora aldatzearen ondorioei buruzkoak, honako hau dio:

*"Kontratista bati aplika dakioken hitzarmen kolektibo berri bat sinatzearen ondoriozko lan-kostuen aldaketa zerbitzu-kontratu publikoaren berezko arriskua da, eta ez du justifikatzen kontratua aldatzea."*

Aurreko guztitik, honako hau ondorioztatzen da:

1.- Kontratuaren prezioak bat etorri behar du lizitazioaren oinarriko aurrekontua finkatzeko unean aplikatzekoa den sektoreko, nazioko, autonomia-erkidegoko edo probintziako hitzarmenarekin, hau da, 2023ko urriaren 26an aplikatzekoa zenarekin.

2.- Une horren ondoren onartutako hitzarmen kolektibo baten ondoriozko kostu-gehikuntzak ez du justifikatzen esleipendunak kontratua formalizatu ez izana.

#### **BIGARREN ALEGAZIOARI BURUZ:**

Legeak ezartzen du zigorra ezartzea betebeharrak dela honako hau dioenean: "ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zai", hau da, ez dago kontratazio-organismoaren borondatearen esku hori eskatzea. Halaber, zigorra ezartzea ez dago Administrazioari eragindako kalte-galeren mende, kalte-galera % 3tik gorakoak direnean ezar daitezkeenaren kalterik gabe.

2017ko SPKLren 150.2 artikulua dioena, apirilaren 27ko 497/2022 KEANren ebazpenean adierazten den bezala, argia da, eta ez du zalantzarako tarterik uzten zigorraren ezarpenari buruz, artikulua horretan araututako izapidea garaiz eta/edo behar bezala betetzen ez bada, izan ere, *"Lizitatuak onartu behar duen legezko ondorioa da, Legean eta aurkaratu ez diren baldintza agirietan aurreikusitakoa kontuan hartuta"*.

Zigor horren izaerari dagokionez, adierazi behar da kontratuaren eremuan zigorrak ezartzea ez dela zehatzeko ahala gauzatzea; aitzitik, kontratu-klausula penal moduko bat da (Kode Zibilarren 1152. artikulua). Horri dagokionez, Auzitegi Gorenaren 2019ko maiatzaren 21eko epaia (EDJ 2019/595892) eman zen.

Kontratuen eremuan zigorrak ezartzeak ez dio erantzuten zehatzeko ahala baliatzeari; aitzitik, kontratua behar bezala betetzen dela zaintzen du.

2017ko SPKLren 150.2 artikuluan aurreikusitako zigorra ezartzeko ez da zehapen-prozedura espezifikorik jarraitu behar, eta prozedura hori ez da modu osagarrian aplikatzekoa ere. Beraz, hori ezartzeko ez da aplikatzekoa ere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 90. artikulua, zehapen-prozeduren ebazpenaren berezitasunei buruzkoa.

Beraz, jakinarazitako ebazpena betearazteko ez dela dioen alegazioa, kontuan hartuta zehapen-izaera betearazlea izango dela soilik zehapena ezartzeko erabakiaren aurka ezin denean errekursorik jarri administrazio-bidean, 39/2015 Legearen 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, baztertu egin behar da, ez direlako aplikatzekoak lege horretan araututako zehapen-prozeduren berezitasunak.

Aurreko guztitik, honako hau ondorioztatzen da:

1.- 2017ko SPKLren 150.2 artikulua xedatzen duenez, kontratazio-organoak, mahaiaren proposamena onartu ondoren, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean honako hauek egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezala: aurretiko betekizunak betetzen dituela, kontratua gauzatzeko hitzemandako edo adskribatutako baliabideak benetan dituela eta, hala badagokio, behin betiko bermea eratu duela.

2.- Dokumentazioa aurkezteko errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatuak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren % 3 (BEZik gabe) eskatuko zaio zigor gisa. Zigor hori, lehenik eta behin, behin-behineko bermearen kontra kobratuko da, baldin eta berme hori eratu bada, 2017ko SPKLren 71.2 a) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

3.- Kasu horietan ezarri beharreko zigorra lizitatuak onartu behar duen legeko ondorioa da, 2017ko SPKLren 150.2 artikuluan berariaz aurreikusitakotik datorrena; eta ezartzerakoan ez da zehapen-prozedura administratiboa aplikatzen.

4.- Horregatik, 39/2015 Legearen 90. artikuluan oinarritutako alegazioa baztertu behar da, ez baitira aplikagarri 2017ko SPKLren 150.2 artikuluko zigorrari 39/2015 Legean arautzen diren zehapen-prozeduren berezitasunak.

Azaldutako guztiagatik, Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Erabaki honen aurrekarietan jasotako arrazoiengatik, ezestea SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresak 2024ko apirilaren 16an aurkeztutako alegazioak, eta erabakitzea enpresa horrek ez duela bete Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko kontratuan ezarritakoa, aipatutako kontratuaren esleipenari uko egin baitio Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikuluan jasotakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** 6.275,48 euroko zigorra ezartzea, Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko administrazio-kontratuaren lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren ehuneko 3ari (BEZik gabe) dagokiona.

**HIRUGARRENA.-** SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SLri eskatzea ezarritako zigorra hilaibeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ordain dezala. Goian adierazitakoa betetzen ez bada, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Dekretuaren 70. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera jardungo da.

**LAUGARRENA.-** Diruzaintzari ahalmena ematea ordainketa-errekerimendua egin dezan erabaki honen babesean.

**BOSGARRENA.-** Hartutako erabakiaren berri ematea prozeduran interesa dutenei, bai eta gai horretan eskumena duten udal-zerbitzuei ere.

## **5.- 2/2024 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.**

2024/06/27  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria





Udalbatzarrak, 2023ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2024-2027 onartu zuen.

Plana onartuta, Garapen Ekonomikoko arloak egokitzen jo du 2024ko eranskinean jasotako aurreikuspenak aldatzea, eta dirulaguntza programa berri bat ezartzea BAILARA Industrial Networkentzat 7. Lerro Estrategikoan: Sustapen Ekonomikoa eta Soziala.

Proposamena ikusita, eta egindako diktamenarekin bat etorritik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** - Ondorengo dirulaguntza programa sartzea 7. Lerro Estrategikoan: SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA SOZIALA.

HARTZAILEAK: BAILARA Industrial Network

- HELBURUA: eskualdearen garapen soziala eta ekonomikoa bultzatzea.
- LORTU GURA DENA: Eskoriatzako enpresa sarea mantentzen, indarberitzen eta sustatzen laguntzea.
- DIRU LAGUNTZA MOTA: dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.
- KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.000,00 euro.
- FINANTZIAZIOA: 0100.481.422.00.01

## **6.- KREDITUAK ALDATZEKO 11. ESPEDIENTEA: KREDITU TRANSFERENTZIA.**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 11/2024 espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipaturako espedientea aplikagarri zaión araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Antolaketa eta Ogasuna batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onspen proposamena irakurri dira.

Aurrez esandako guztian oinarrituta, eta Antolaketa eta Ogasuna batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, bertaratutako EAJ/PNVko bi zinegotziak abstenituta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 11/2024 espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

2024/06/27  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria



Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.226.432.00.08 2024	EKINTZAK:TURISMO	4.000,00	3.000,00	1.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>4.000,00</b>	<b>3.000,00</b>	<b>1.000,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0100.481.422.00.01 2024	DIRU LAGUNTZA:BAILARA INDUSTRIAL NETWORK	0,00	3.000,00	3.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>0,00</b>	<b>3.000,00</b>	<b>3.000,00</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik bestelako tramite barik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa berehalako eraginarekin.

**7.- KREDITUAK ALDATZEKO 13. ESPEDIENTEA: kreditu gehigarriak.**

UDAL honen Aurrekontuari dagokion Kredituak Aldatzeko 13/2024 espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa kreditu gehikuntza bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, Antolaketa eta Ogasuna batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da. Bertaratutako EAJ/PNVko bi

zinegotziak abstenituta eta gainerako zinegotzietan alde bozkatuta, Udaltzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 13/2024 espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapituluko laburpenaren arabera:

Gastuen partida	I. Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.601.165.00.02 2024	ARGITERIA PUBLIKOA	48.128,21	21.114,00	69.242,21
1 0100.622.333.20.01 2024	IBARRAUNDI MUSEOA	0,00	13.720,00	13.720,00
1 0100.622.333.10.01 2024	KULTUR ETXEA	0,00	6.100,00	6.100,00
1 0100.622.342.10.01 2024	PILOTALEKUA	0,00	19.304,00	19.304,00
1 0100.210.153.20.01 2024	MANTENIMENDUA:BIDE PUBLIKOEN ZOLADURA	40.000,00	20.000,00	60.000,00
1 0200.227.920.00.35 2024	UDALEKO LANPOSTUEN BALORAZIOA	0,00	18.150,00	18.150,00
<b>GUZTIRA</b>		88.128,21	98.388,00	186.516,21

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2024	DIRUZAINZAKO GERAKINA: GASTU OROKORRETARAKO	98.388,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>98.388,00</b>

## KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina.
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Bigarrena.- Jendurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, nahi duenak erreklamazioak jar ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

### **8.- 2023KO KONTU OROKORRAK ONARTZEA.**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2023ko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, honako hauek: Udalaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera; eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren aurrekontuen kitapenak.

2024ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2024ko maiatzaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaraturako EAJ/PNVko bi zinegotziak abstenituta eta gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“2023ko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2024ko maiatzaren 16an egindako Kontu Batzorde Bereziaren hasiera batean onartu ondoren, eta 2024ko maiatzaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

### **9.- JOSE ARANA PATRONATUKO FUNDAZIOAK ESKATUTAKO HOBARIA.**

Alkatetzaren 2024ko apirilaren 18ko Erabakiz, JOSE ARANA PATRONATUKO FUNDAZIOARI honako obra hauek egiteko lizentzia eman zitzaion: *Gaztañadui kaleko 24. zenbakiko eraikinean hezetasunak konpontzea mintz iragazgaitz berria jarrita eta junturak saneatzea.*

Lizentzia ematearekin batera, lizentziak sortutako tasa eta zergak kitatu ziren behin-behinekoz, 93,91 € eta 1.514,68 € hurrenez hurren.



EIOZ kuotan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantzak 5.3.3.4 artikuluan aurreikusitako hobaria egiteko eskatu da 2024ko maiatzaren 21ean.

Eskaera justifikatzeko ematen diren arrazoiak ikusita, eta eraikinean ematen diren zerbitzuak kontuan hartuta (zaharren egoitza eta eguneko zentroa); Udalbatzarrak, Antolaketa eta Ogasuna batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** INTERES SOZIALEKOTZAT JOTZEA Gaztañadui kaleko 24. zenbakiko eraikinean (Jose Arana zaharren egoitza eta eguneko zentroa) hezetasunak konpontzeko OBRA —mintz iragazgaitz berria jartzea eta junturak saneatzea—, eta, ondorioz, EIOZak sortutako kuotaren % 95eko hobaria izatea.

### **10.- GALDE-ESKEAK.**

Josu Ezkurdiak galdetu du ea Udalak informaziorik jaso duen Gipuzkoako Foru Ogasunak jubilatutako mutualistei PFEZaren bidegabeko diru-sarrerak itzuli behar izateak Foru Funtsetik jasotzen den ekarpenean izan dezakeen eraginari buruz; prentsan irakurri baitu itzuli beharreko zenbatekoa handia izango dela.

Esan diote ez dutela informaziorik jaso, eta zerbait jakin bezain laster jakinaraziko dutela.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:09an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



## **I. ERANSKINA// ANEXO 1**

### **EKKO PROGRAMA 2024-2025 IKASTURTEA AURRERA ERAMATEKO ARETXABALETAKO ETA ESKORIATZAKO UDALEN ARTEKO HITZARMENA**

#### **BILDURIK**

Alde batetik, Garikoitz Iturbe Etxebarria jauna, adinez nagusia, NAN zenbakia duena, Aretxabaletako alkate jauna, eta hitzarmen hau Aretxabaletako Udalaren izenean sinatzeko ahalmena duena.

Eta bestetik, Edorta Zubizarreta Alegria jauna, adinez nagusia, NAN zenbakia duena, Eskoriatzako Udaleko alkate jauna, eta hitzarmen hau Eskoriatzako Udalaren izenean sinatzeko ahalmena duena.

Bi aldeek, honako hau

#### **ADIERAZTEN DUTE**

**2024/06/27**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria



**BAT.-** Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17-1.36 artikulua araberaz, gazteria politiken planifikazio eta kudeaketa arloko eskuduntzak gauzatzeko ari dira, bai laguntza deialdiak urtero eginez bai gazteei zuzendutako jarduerak garatuz.

2022an, bi udalen artean elkarlanean, EKKO programa jarri zen martxan, Aretxabaleta eta Eskoriatzako haurrei eta gurasoei zuzendutako programa, bertako ikastetxeetan aurrera eramateko.

**BI.-** EKKO programa haurren artean trebetasun sozialak lantzeko programa da. Programa honen bidez, alde aurreko erantzuna eman nahi zaie bigarren hezkuntzako ikastetxeetan nerabeen artean hainbat arlotan antzemandako gabeziei, hain zuzen ere, autoestimuan, gatazken kudeaketan, erabakiak hartzeko gaitasunean, komunikazioan eta harremanetan antzemandako gabeziei.

Horregatik, prebentzio lana eginez, trebetasun horiek lantzen ari gara haurrekin. Horrez gain, programak gurasoekin ere hainbat saio egiten ditu, haurrekin landutakoa, beraiekin ere lantzeko helburuarekin.

**HIRU.-** EKKO programa Aretxabaletako Udalak atera zuen lehiaketa publikora bi udalen izenean. 2022ko urrian hasi zen zerbitzua martxan bi urteko iraupenarekin eta beste urte beteko luzapena egiteko aukerarekin.

Izan ere, EKKO programak 2 urteko iraupena du, LH5ean hasi eta LH6an amaitzen da. Programaren hasieran eta amaieran, haurrek trebetasun sozialetan dituzten gaitasunak neurtzen dira eta emandako emaitzek adieraziko dute programak trebetasun sozialen garapenean eraginik izan duen ala ez, eta zenbatekoa izan den eragina, horrela izan bada. Programak, bi belaunaldi neurtzea aurreikusten du, hiru ikasturteetan zehar, emaitzak aztertzeko belaunaldi bat baino gehiago egon dadin.

**LAU.-** Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten 2022ko ekainean eta bertan 2024ko ekainarera arteko finantziario konpromisoak jasotzen ziren.

## **KLAUSULAK**

### **LEHENA. HELBURUA.**

Hitzarmen honen helburua da, trebetasun sozialen eskola, hau da, LH5-LH6ko ikasleei eta euren gurasoei zuzendutako proiektuaren kontratua beste urtebetez luzatzea eta azken urtea bi udalen artean ordaintzea orain arte bezala.

### **BIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA.**

2024/06/27  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

Udal biek lankidetzaz hitzarmen hau onartzen eta formalizatzen dute Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17-1.36 artikulua aitortzen dien eskuduntzen babesean.

Lankidetzaz hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan aurreikusitakoaren babesean antolatzen da.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 9/2017 Legearen aplikazio eremutik kanpo gelditzen da, bere 6.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

### **HIRUGARRENA. ALDE BAKOITZAK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISO EKONOMIKOAK.**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hitzarmen honetan sartzen diren finantza konpromisoak jasangarriak dira finantza aldetik, eta alde biek aitortzen dute hitzarmen honen indarraldirako beraien gain hartutako konpromisoari aurre egiteko gaitasuna dutela.

Finantza konpromisoak honako hauek dira:

#### **2024-2025 ikasturtea**

2022ko ekainean sinatutako hitzarmenean oinarritutako proportzioan jasotzea finantza konpromisoak. Herri bakoitzak duen zerbitzu-hartzaileen proportzioaren arabera, kopuru hori honela banatuko da 2024-2025 ikasturterako:

- Aretxabaletako Udalak: 36.725 € (%65ari dagokiona)
- Eskoriatzako Udalak: 19.775 € (%35ari dagokiona). 2024ko urria eta Abendua bitartekoa 7.415,62 €. 2025 urtarrila-ekaina 12.359,38€

Sinatzaileek finantza-ekarpenak egiteko konpromisoa hartuta, ekarpen horiek ezingo dira izan hitzarmena betearaztearen ondorioz sortutako gastuak baino handiagoak.

#### Aretxabaletako Udalaren betebeharrak:

1. Aretxabaletako Udalak konpromisoa hartzen du 2024-2025 ikasturtean 36.725 €-ko ekarpen ekonomikoa egiteko.

2.- Aretxabaletako Udalak, udal bien izenean eta kontura, konpromisoa hartzen du zerbitzu kontratu administratiboaren luzapena, beste urtebetez luzatzekoa, kontratuaren urte guztiak agortuz horrela.

3. Aretxabaletako Udalak, bi udalen izenean, bere gain hartzen du proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak atera ditzaketen diru-laguntzen deialdietara aurkezteko ardura, eta baita horren berri Eskoriatzako Udalari jakinaraztekoa ere.

4.- Aretxabaletako Udalari dagokio jasotako diru laguntzaren zuriketa egitea eta beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztea.

#### Eskoriatzako Udalaren betebeharrak:

**2024/06/27**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria





1.- Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du 2024ko udal aurrekontuetatik 7.415,62 €-ko ekarpen ekonomikoa egiteko (urria-abendua) epeari dagokiona. Eta 2025eko aurrekontuetatik 12.359,37€ko ekarpena egiteko (urtarrila-maiatza).

2.- Ordainketa gehienez ere hamar egun balioduneko epean egingo da Aretxabaletako Udalak ordainketa egiteko eskatzen dion egunetik kontatzen hasita. Trebetasun sozialen urteko zerbitzua zortzi fakturatan banatuko da.

3.- Eskoriatzako Udalak honako hau izendatzen du kontratuaren arduradun: Gazteria teknikaria

### **LAUGARRENA. JASOTAKO DIRULAGUNTZEN BANAKETA**

Azken urte honetan dirulaguntzaren bat eskatzen bada, ebazpenak irteten direnean, jasotako dirulaguntzaren banaketa ondorengo portzentajearen arabera egingo da:

Aretxabaletako Udalari : %65a

Eskoriatzako Udalari: %35a

### **BOSTGARRENA. SOLASKIDEAK**

Udal bakoitzak honako teknikaria izendatzen du hitzarmen honekin zerikusia duten gorabeheren buruzko informazioa trukatzeko:

- Aretxabaletako Udala: Gazteria teknikaria
- Eskoriatzako Udala: Gazteria teknikaria

### **SEIGARRENA. BETEBEHAR ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK**

Alderdi sinatzaileek euren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak (hitzarmen honetan jasotzen direnak) ez betetzeak, lankidetzaren hitzarmen hau suntsitzea ekarriko du, alde aurretik beste aldeari entzundakoa bermatuko dion aurkakotasun-prozedura egin ondoren.

### **ZAZPIGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.**

Lankidetzaren hitzarmen hau indarrean egongo da bertan aurreikusitako jarduerak amaitu arte, eta, nolabait ere, indarririk gabe geratuko da 2025eko uztailetik aurrera.

Ezingo da isilbidezko luzapenik egin.

### **ZORTZIGARRENA. JARRAIPEN BATZORDEA**

Hitzarmena behar bezala betetzen dela zaintzeko, Jarraipen batzordea eratuko da. Batzorde hau herri bietako alkateekin eta Aretxabaletako gazteria teknikariarekin eta Eskoriatzako gazteria teknikariarekin eratuko da. Aretxabaletako gazteria teknikaria batzordeko idazkaria izango da.

2024/06/27  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria



Batzorde horren zereginak izango dira hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean eragin daitezkeen desadostasunak konpontzea eta hitzarmena hobetzeko proposamenak egitea.

Batzordea alkateetako batek eskatzen duen bakoitzean bilduko da, eta adostasunez hartu beharko dituzte erabakiak.

### **BEDERATZIGARRENA. HITZARMENAREN ALDAKETAK**

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alda daiteke bi aldeek hala erabakiz gero, eta erabaki berriak gehigarri gisa erantsiko zaizkio hitzarmen honi.

### **JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Administrazioarekiko auzian jurisdikzio auzitegiei dagokie hitzarmen hau aplikatu eta garatzearen ondorio diren auziez arduratzeko eskumena.



### **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 23/05/2024.

### **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 20 de junio de 2024.

De forma expresa se da traslado de las resoluciones por las que se aprueban los expedientes de modificación de créditos N° 9 y N° 12.

### **3.- CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA Y EL AYUNTAMIENTO DE ARETXABALET A PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA EKKO 2024-2025.**

Desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Deportes se propone formalizar un convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Aretxabalea para el desarrollo conjunto del Programa EKKO durante el periodo 2024-2025

Para la validación del citado convenio de colaboración es necesario aprobar el reconocimiento de los abonos para los próximos ejercicios 2024 y 20025 mediante la creación de un crédito de compromiso, con las siguientes anualidades:

Año 2024	7.415,62 €
Año 2025	12.359,38 €

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno acuerda:

**Primero:** Formalizar con el ayuntamiento de Aretxabalea un convenio de colaboración para la materialización del Programa EKKO en ambos municipios durante el periodo 2024-2025. La cláusulas del convenio a formalizar quedan fijadas en el Anexo 1 del presente acta.

**Segundo:** Facultar al Sr. Alcalde para que, en nombre y representación del Ayuntamiento, formalice dicho convenio.

**Tercero:** Aprobar el gasto de 7.415,62 €ko euros con cago a la partida 0400.422.337.20.01 del vigente presupuesto y aprobar el presente proyecto de creación de crédito de compromiso para la firma del Citado Convenio de Colaboración,

<b>Anualidades</b>	<b>Importe</b>
Año 2024	7.415,62 €
Año 2025	12.359,38 €

**2024/06/27**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

#### **4.- IMPOSICIÓN DE PENALIDAD POR HABER RENUNCIADO A LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA.**

El día 26 de octubre de 2023 el Pleno de la Corporación acordó aprobar el expediente de contratación de la prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza (servicios obligatorios y servicios opcionales), con un presupuesto de licitación de 209.182,96 euros anuales, más 20.918,30 euros de IVA

Dentro del plazo fijado para la presentación de proposiciones, presentó oferta una única empresa: SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO S.L.

